

AJAren LABURPENA 26-27

IES Zaraobe BHI indarreko legeriak araututako ikastetxe publikoa da. AJAk, legeria horretan oinarriturik, Institutuko elkarbizitza eta antolakuntza arautzen du.

IKASLEEN ESKUBIDEAK

I. Irakasleek ikasleen eskubideak babesten laguntzea.

IES ZARAOBE BHIko irakasle guztiek 2ko 201/2008 dekretuaren legepean, ikasleen eskubideak babesten lagunduko dute.

II. Irakasleek ikasleen eskubideak babesten laguntzea

a) Irakasleek beren nortasuna **guztiz garatzeko aukera emango dien hezkuntza integrala jasotzeko** eskubidea dute.

III. Ikasle adingabeek arreta berehala jasotzeko eskubidea.

- a) Ikasle **adingabeek ikastetxean nahiz irakasleen arreta berehala jasotzeko eskubidea** dute.
- b) Ikastetxeak eta bertako irakasleak behartuta daude **tratu txarrak edo haurren babesik gabeko edo arriskuko egoeren berri ematera** adingabeen babesari buruzko eskumena duten Herri Administrazioei,edo, beharrezkoa denean, Fiskaltzari edo Agintaritza Judizialari.
- c) Derrigorrezko eskolatze-adineko ikasleren bat eskolatu gabe dagoela edo ikasleren batek **absentismo**-maila handia duela atzematen bada, Hezkuntza-agintariei eta tokiko erakundeei jakinarazi beharko zaie.
- d) **Ikasleen aurkako indarkeria-zantzurik atzeman badute, irakasleak behartuta egongo dira zantzu horiek ikastetxeko gobernu-organismoari jakinaraztera.**

IV. Ohorea, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea.

- a) Ikastetxeak **ikasle adingabeen eskubideak bermatu behar ditu, haien oreka, intimitatea eta irudi propioa zainduz.**
- d) **Ikasleengandik eta familiengandik eskuratutako datu pribatu guztiak diskrezioz erabili.**

V. Errendimendu akademikoaren balioespen objektiboa izateko eskubidea.

- b) **Ebaluaziorako zein irizpide egongo den eta ikasturte edo estola ziklo bakoitzean gainditu beharreko gutxienezko helburuak ezagutzeko eskubidea dute irakasleak. Irizpide horiek, ikastetxeko curriculum proiektuaren barruan egongo dira, ikasturte hasteko unean ezagutarazi beharko dira eta indarrean dauden ikasketa planekin eta ikastetxeari aitortzen zaion autonomia gauzatzerakoan hartzen dituen aukerekin bateragarriak izan beharko dute.**
- c) Irakasleek **edozein probaren emaitzak lehenengo 10 lanegunetako apean jakiteko eskubidea dute.**
- e) Ikasle batek azterketa saio batera huts egin izana, behar bezala justifikatuz gero, irakasleak erabakiko du noiz eta zein modutan egingo dion aipaturiko azterketa.
- f) Ikasturtean zehar, ebaluaketa garaietan ebaluaketari dagozkion azterketek lehentasuna izango dute edozein irakasgai berreskuratzeko azterketaren aurrean.
- g) Irakasleek edo beren legezko ordezkariak **erreklamazioak egiteko eskubidea dute aipatutako ebaluazio horietako kalifikazioen aurka.**

VI. Eskola eta lanbide orientaziorako eskubidea.

a) Ikasleek **hezkuntza eta lanbide-orientazioa jasotzeko eskubidea** dute. Orientazioa ikasleen trebetasun, gaitasun, nahi eta interesetan oinarrituko da, eta sexual edo bestelako zirkunstantziaren batean oinarritutakoak baztertu egingo dira.

VII. Osotasun, nortasun eta duintasun pertsonaleko eskubidea.

a) Ikasleek beren **osotasun fisikoa eta moral errespeta diezaieten eskubidea dute, baita beren nortasun eta duintasun pertsonala ere**, eta ez zaie inoiz tratatu iraingarri edo laidogarria emango. Era berean, zeinahi eraso fisiko edo moralaren aurrean babesa jasotzeko eskubidea dute.

VIII. Kontzientzia-askatasunerako eskubidea.

Ikasleek eskubidea dute beren kontzientzia-askatasuna eta beren erlijio-sinesmenak nahiz sinesmen moral eta ideologikoak errespeta diezazkieten.

IX. Ikasleak ikastetxean biltzeko eskubidea.

a) Ikasleak ikastetxean **bildu ahal izango dira** eskolako nahiz eskolaz kanpoko jarduerak gauzatzeko, baita **hezkuntza edo trebakuntza xede duten jarduerak gauzatzeko ere**.

X. Taldeak eskoletara ez agertzeari buruzko arauak.

a) Biltzeko eskubidea betetzearen ondorioz DBHko hirugarren mailatik gorako ikasle talde bat derrigorrezko eskoletara edo bestelako jarduetara huts egitea ez da jokabide okertzat hartuko. Gertakari horiek ezin izango dira jarrera desegokitzat hartu, ondorengo baldintzak betetzen badira.

b) **DBHko 1go Zikloko ikasleak klaseetara ez joateko deialditik at geratzen dira.** DBHko 2. Zikloko ikasleei buruzko araudiaren arabera, Hezkuntza Sistema Orokorren barruan eskolara ez joateko deialdietan parte hartzeko onartzen zaien arren, Zentroaren barruan eskola ordutegian egotearen beharra ere azaltzen da. **Horregatik, klaseetara ez joateko deialdi hauetan parte hartzeko eskubidearen ondorioak kontuan harturik bakar-bakarrik, espresik, gurasoek edo tutoreen idatzizko baimena (eurek izango dute haien seme-alaben klaseetara ez etortzearen ardura) duten ikasleek parte hartu ahal izango dute. Ikasketa Burutzan greba egiteko baimena duten ikasleen zerrendak egongo dira eta bozkatzeko orduan erabili ahal izango dira.**

c) Klaseetara ez joateko deialdia, arrazoiak ondo azalduta, **idatziz** egingo dute antolatzaileek, aldez aurretik **onartutako data baino bi lan egun lehenago, gutxienez**, honako datuak adieraziz: **deialdiaren egilea, data, ardua eta programatutako ekintzak.**

d) **Salbuespen gisa, lanegun bat lehenago egin ahal izango da deialdia, baina premiaren arrazoiak azaldu beharko ditu proposatzen duenak.**

e) Klaseetara ez joateko deialdia bakar-bakarrik ondoko pertsonak eta erakundeak eskatu ahal izando dute: Delegatuen Batzordea, Delegatuen koordinakundeak (bere ordezkarien 1/3ak behintzat hala eskatuta), ikasleriaren %20k edo ikasleen elkarteak edota Federakuntzak edota ikasleen Konfederakundeak legalki eratuak horretarako dagoen eskaera orria zuzendaritzari bidaliz. Beti deialdi ofizial bati lotuta egongo da. Dual-en dauden ikasleak ezingo dute parte hartu eta ez dira kontutan izango bozketaren zenbaketan.

g) Deialdiaren proposamena onartzen bada –komunikazioa, idatziz-, Zuzendaritzak Delegatuen asnlada deituko du eta, bozketa sekretuan eta gehiengo osaos, (akta batean idatziko da), baietza ala ezetza emnago zaio. **Onartuz gero, Ikasketa Burutzak geletan bozkatzeko baimena emango du honako urratsak jarraituz:**

- **Komunikatua**, grebaren arrazoiak emanik, Delegatu guztiei pastasen zaie geletan ozenki irakur dezaten, irakaslea aurrean dagoelarik, Ikasketa Burutzarekin akordatutako momentuan.
- Irakurri eta gero, paperen bidezko **bozketa sekretua beteko da**. Irakasleak prozesua gainbegiratu du eta aldez aurretik Delegatuak Ikasketa Burutzan hartutako akta beteko du.
- Bozketaren emaitza megafoniaz jakinaraziko da eta irakasleen gelako arbelean ere idatziko da.
- **Desbinkulatutako ikasleek klaseetara** joan beharko dute.
- Bozketan parte hartu duten ikasle orok, bozketaren emaitza onartu beharko du, alde edo kontra egonda ere.
- **Ikasketa Burutzan greba egiteko baimena duten ikasleen zerrendak egongo dira eta bozkatzeko orduan erabili ahal izango dira.**

h) Klasera ez joateak, aurreko idazkian ezarritako eginkizunak betetzen direnean, disciplina ondorioetarako ez dira kontutan hartuko, baina gurasoei edo legezko ordezkariari jakinaraziko zaie, ohizko kanalak erabiliz.

XI. Adierazpen-askatasunerako eskubidea.

b) **Idatzizko adierazpen askatasuna bermatzeko**, Zuzendaritzak leku aproposak jarrito ditu: ikastetxeko pasabideetako **kortxo batzuk**. Haietan kontuan hartuko da instituzioek eta estola elkarteko edozein kidek merezi duten errespetua. Kortxo hauek **ikasleen elkartearen artean banatuko dira ekitatiboki, iragarki orokorretarako leku gehiago utziz**.

c) **Ikasleak artikulu honetan adierazitako eskubideak betetzeko estola-eremutik ateratzekoak badira, gurasoen edo legezko ordezkarien baimen idatzia beharko dute, baldin eta adinez txiki badira**. Idazki horretan, ikastetxetik ateratzeko baimena zer ordutan ematea eskatzen den adierazi beharko da.

d) **Idatzizko adierazpen guztiak onartuko dira, ikastetxeko ikasleek taldeka edo banaka sinatuak badira edo Zuzendaritzaren oniritzia badute**.

XII. Ikasleek elkartzeko duten eskubidea.

a) **Ikasleek elkartzeko eta elkarrekin, federazioak nahiz konfederazioak osatzeko eskubidea dute**, indarrean dauden legetan oro har xedatutakoarekin bat.

XIII. Parte hartzeko eskubidea.

a) **Ikasleek ikastetxeko jardueran eta bizimoduan parte hartzeko eskubidea dute**, indarrean dauden arauak jarraituz.

XIV. Informazio izateko eskubidea.

Gure ikastetxeko ikasleek informazioa jasotzeko eskubidea du bere Organo espezifikoaren kideengandik eta Ordezkatzeko Organo Gorenko edo Estola Kontseiluko bere ordezkariengandik. Informazioa, ikastetxearena zein Hezkuntza sistemari buruzkoa.

XV. Aukera-berdintasunerako eskubidea.

a) **Aukera-berdintasuna lortzeko, ez da inor baztertuko jaiotze, arraza, hizkuntza, sexua, ekonomia, gizarte, politika, moralak edo erlijio mailako uste sendoak direla bide, ezta urritasun fisiko edo psikikikoengatik edo beste edozein egoera pertsonal edo sozialagatik ere**.

b) **Aukeren benetakoa eta efektiboa den berdintasuna bermatuko dute neurri positiboak jartzea. Artikulu 63.**

c) **Integrazioarako politikak gauzatzea eta hezkuntza behar berezietarako erantzunak.**

XVI. Gizarte-babesarako eskubidea.

a) **Familiako zorigaitzaren edo istripuaren kasuetan, Gizarte Segurantzaren gaietan legedian agindutako muga barruan, babes sozialerako eskubidea** daukate ikasleek. Familia ez-beharra, istripua edo eritasun luze bat jasaten duten ikasleek, egiten ari diren ikasketetan jarraitzea edo bukatzea ezinezko gerta ez dakien, agintzari publikoek ezarritako dituzte dagozkien baldintza akademiko edo ekonomikoak. Derrigorrezko ikasketen mailak egiten ari diren ikasleek, kasu horietan, beren estola emankortasuna ziurtatzeko beharrezkoa izan dadin lagunaz hartzeko eskubidea dute.

c) **Ikastetxeak babes-neurriak hartu beharko ditu berdinen arteko tratatu txarren kasuetan eta bereziki estola-jasarpenean eta emakumeen aurkako erasoaren kasuetan**. Beharrezkotzat jotzen badu, jasarleak ikastetxetik aldatzea berréala proposatu dezakete edo, jasarpenearen biktimek nahiago badute eta halka eskatzen badute, biktimek lekuz alda ditzekete.

IKASLEEN BETEBEHARRAK

I. Ikasteko betebeharra

a) **Ikaslearen betebeharra da bere gaitasun guztiak al bait gehien garatzeko ikastea eta ahalegina egitea.** Hain zuzen ere, duintasunez bizitzeko, elkarrekin bizitzeko eta etorkizunean laneratzeko behar diren gaitasunak lortzearen, behar adinako lana egingo du eta behar den interesez; era berean, lan intelektualerako giro egokia sortzen eta giro horri eusten lagundu behar du, eta bere portaerarekin ez du eragozpenik sortuko gelan.

b) **Ikasleak behartuta daude azterketak eta ariketak egiten dituztenean zintzo jokatzera, eta, beraz, beren ahalegina eta irakasleak maila bakoitzean baimendutako liburuak nahiz materialak besterik ez dituzte erabiliko.**

c) **Ikaslea arduratuko da eskola material guztia egunero ekartzeko** eta saioetarako prest edukitzeko. Material hori gordetzeko takilak erabiltzea gomendatzen da. Baliozko beste gauzak ez ekartzea gomendatzen da. Zaraobek ez du erantzukizunik bere gain hartzen ustez lapurtu, galdu edo desagertutako ondasunei buruz. Hala ere, ebaslea aurkituko balitz, 201/2008 dekretuko, dagozkion neurri zuzentzaileak aplikatuko dira

II. Prestakuntza-jardueretan parte hartzeko beharra.

Ikasle guztiak hartu behar dute parte prestakuntza-jardueretan (Ikastetxeak antolatutako kanpoko ekintzetan), interesez jardunez, agintzen dizkieten lan pertsonalak eginez eta antolatzen diren lan-taldeetan lagunduz.

III. Bertaratzeko betebeharra.

Ikasleek egunero joan behar dute eskolara, puntualtasunez eta justifikatu gabeko absentsiarik izan gabe, eta sartzeko nahiz irteteko ordutegiak errespetatu behar dituzte.

a) **Honako hauek hartuko dira justifikatu gabeko bertaratze-eta puntualtasun-hutsegitezat: ikasleak edo, ikaslea adingabea bada, haren gurasoek edo legezko ordezkariak idazki bidez arrazoitzen ez dituztenak.** Klasera ez etortzea ondoko bide hauek erabiliz justifikatuko da: **medikuaren agiria edo ZARA OBE BHIko agiri ofiziala eta gurasoek sinaturik. Inola ere ez dira kontuan hartuko honelakoak: “arazo pertsonalak”, “etxean edo liburutegian ikasten gelditzea”, “lotan geratzea”, etab.**

b) Adin nagusiko ikasleek hutsegiteak tutoreari justifikatuko dizkiote dokumentu ofizialaren bidez.

c) **Klase saioak iraun bitartean ikasleak ezin dira ikasgelatik atera irakaslearen baimenik gabe. Gainera, DBHko lehen zikloan ikasleek klase aldaketetan ikasgelaren barruan itxarongo dute.** Ahal den neurrian lehen zikloko ikasleak ez dira klase tarteetan bakarrik utziko.

Beraz, ziklo honetan komunera joateko: Atsedendian, patiora atera aurretik edo klasera sartu aurretik. - Patioan egonda, zaintzako irakasleari eskatuta. - Klase-saioan zehar, dagozkion irakaslearen baimenaz eta banaka

IV. Bizikidetza errazteko betebeharra.

Ikasleek parte hartu eta laguntza eman behar dute ikastetxean eskola-bizikidetza hobetzeko eta ikasteko giro egokia lortzeko, betiere ikaskideen hezkuntzarako eskubidea eta irakasleen agintaritzak eta orientazioak errespetatuz.

a) Horretarako, **ikasleek** beren ikastetxeko Antolakuntza eta Jarduera Araudian edo Barne Araudian bildutako Bizikidetza Arauak jakin behar dituzte; **irakasle eta hezkuntza-komunitateko kide guztien eskubideak errespetatu behar dituzte**, eta portaera egokia izan behar dute haiekin guztiekin, besteek beren eskubideak baliatzeko dituzten eskubideak urratu gabe, sortzen diren gatazkak konpontzeko metodo

baketsuak soilik erabiliz, eta betiere ikaskideekiko tolerantzia eta elkartasunez jokatzuz eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak baliatzea erraztuz.

b) Ikasleek bizikidetzarako aurkakoak eta larriki kaltegarriak diren jokabideen neurri zuzentzaileak aplikatzeko lagundu behar dute, zuzendariak edo, hala badagokio, instrukzioaz arduratzen den edozein irakasle eskatzen dienean lekuko gisa.

V. Norberaren kontzientzia-askatasuna errespetatzeko betebeharra.

Ikasleek hezkuntza-komunitateko kide guztien kontzientzia-askatasuna, erlijioaren eta moralaren arloko sinesmenak, eta duintasuna, osotasuna eta intimitatea errespetatu behar dituzte, honakohauak arrazoitzat hartuta inolako diskriminaziorik egin gabe: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera

zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.

a) Ikasleek beren ikaskideen erabakiak errespetatu beharko dituzte, ikaskideek adierazteko, biltzeko edo elkartzeko eskubide indibidualak modu kolektiboan baliatzeko ekintzetan parte hartu nahi ez dutenean.

b) Ikasleek ez dute hezkuntza-komunitateko kide bakar bat ere iraindu, mehatxatu edo difamatzeko ezein adierazpenik egingo.

c) Ikasleek eskola eremuan ezin izango dute grabazio-baliabiderik erabili, salbu eta, Ikastetxeak programatutako jardueretan horrelako baliabideak erabili behar badira, eta kasu hauetan, norberaren baimena behar da.

VI. Eskolako arauak errespetatzeko betebeharra.

a) Ikasleek beren eskumenen arloan ikastetxeko gobernu-organoen erabakiak bete beharko dituzte, norberaren garbiketari eta norberaren gauzak, jantziak, tresnak edo aparato elektronikoak erabili eta erakusteari buruzkoak borneyan hartuta.

b) Era berean, ikasleek irakasleen, hezkuntzako laguntzaileen nahiz legezko araudiak esleitu dizkien funtzioak gauzatzen ari diren ikastetxeko irakasle ez diren jarraibideak bete beharko dituzte.

c) Ikastetxeak ezartzen dizkien hezkuntza-neurri zuzentzaileen borneyan hartutako ekintzak betetzeko betebeharra dute ikasleek.

d) Adin txikiko ikasleek eskola-orduan ikastetxean egon beharko dute, atsedenaldia eta jantokiko ordua (bertako erabiltzaileak balira) barne. Betebehar honetatik kanpo geratuko dira DBHko 3. mailatik gorako ikasleak, aita, ama edo legezko tutoreak sinatu behar dien baimena ekartzen badute.

e) Eskola kontseiluak onartzen dituen Eskolaz kanpoko ekintzetara joatea derrigorrezkoa da. Beraz, ez joatea justifikatu gabeko faltatzat hartzen da, ez bada dagokion agiririk ekartzen.

VII. Instalazioak errespetatzeko betebeharra.

a) Ikasleek ikastetxeko ekipamendua eta material didaktikoa zaintzeko eta egoki erabiltzeko betebeharra dute, ikastetxeko instalazioak, altzariak eta ekipamendu orokorra bere nolakotasunaren arabera eta beren helburuetako erabiliz, eta, hala badagokio, irakaslearen edo irakasleak ez diren jarraibideen arabera. Ez dute inola ere ikastetxeko ekipamendua baimenik gabe erabiliko ezarritakoak ez diren helburuetako, ezta dagokion ordutegitik kanpo.

b) Ikasleek, baimenik gabe, ez diote kanpoko inori ikastetxean sartzeko aukera erraztuko, eta ez dira bidegabe sartu den inorekin ibiliko bertan. Ildo horretatik, legez Erato diren eta ikastetxean ezarri diren ikasle-elkarteak ordezkatzan dituzten pertsonak ez dira ikastetxetik kanpoko pertsonatzat hartuko, betiere ordezkari giza identifikatzen dien dokumentazioa baldin badute eta elkarteko zuzendaritzari bere bisitaren berri eman baldiot.

c) Pankartak eta kartelak: Baimenik gabe jarritako kartelak zuzendaritzaren aginduz ken daitezke. Kolektibo batek pankarta bat jarri nahiko balu, zuzendaritzari eskatuko dio baimena, eta honek baloratuko

luke, kasuan kasu, bere egokitasuna, kokapena eta iraupena. Kartel eta pankarten jartzaileak jasotzeaz arduratuko dira, jasotzeko momentua iritsita (data pasatu delako, adibidez).

VIII. Euskaraz hitz egiteko betebeharra.

Eredu euskaldunetan matrikulaturik dauden ikasleek euskaraz egin behar dute irakasleriarekin eta ikaskideekin hizkuntza honetan ematen diren klase orduetan.

IX. Betebeharrak betezeko bermea.

Irakasleren batek ikusi badu ikasleren batek ez dituela bere betebeharrak bete, haren jokabidea zuzendu beharko du berehala. Horrez gain, irakasleak uste badu, ikasleak bere jokabideaz hezkuntza-komunitateko beste kide batzuen eskubideak urratu dituela, Ikasketa Burutzarengana joatea agindiko dio.

APARAILU ELEKTRONIKOEN ERABILPEN ARAUAK (telefono adimentsuak, MP3, tabletak, eta abar)

Dispositibo mugikor zein informatikoen erabilpena (telefonoak, tabletak, ordenagailu eramangarriak,...) kode etiko digital bati jarraituko dio: **Aparailu hauen erabilerak izaera didaktikoa besterik ez du izango.** Ikasgelan eta irakaslearen gidaritzapean erabiliko da soilik, beraz erabilera ludikoa baztertzen da zentroan. Alde komunak (sarrerak, pasabideak, komunak, patioak) teknologia gabeko esparru izango dira, eta bertatik bertarako harremanerakoak (elkarriketa, kirola, jolasa).